

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 1226

*AGINDUA, 2018ko otsailaren 19koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez berariazko lehiaketaren deialdia egiten baita Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik eta /edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko.*

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legean ezarritakoaren arabera, 6.1 artikuluan, herritar guztiek dute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioarekiko harremanetan.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legeko 532. eta 533. artikuluetan eta Justizia Administrazioako Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden plaza hutsak betetzeko berariazko lehiaketa iragartzen da, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako funtzionarioen artean eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan. Lanpostu horiek I. eranskinean daude jasota, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuen zerrendan.

Deialdi honetan, kontuan hartu da gizonen eta emakumeen arteko tratu berdinen eta aukera-berdintasunaren printzipioa, enplegu publikora iristeko orduan, honako hauekin bat: Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua; Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa; Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea; Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko abenduaren 30eko Erabakia, zeinaren bidez VI. plana onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostu hutsak betetzea, berariazko lehiaketa baten bidez, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetan. Lanpostu horiek I. eranskinean daude jasota, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuen zerrendan.

##### 2. artikulua.– Parte hartzeko eskakizunak.

###### 1.– Eskakizun orokorrak:

a) Parte hartu ahal izango dute Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako karrerako funtzionarioek, destinoa

edozein lurralde-eremutan dutela ere, baldin eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean deialdi honetan ezarritako baldintza orokorrak eta betekizunak betetzen badituzte. Lehiaketaren behin betiko ebazpena eman arte jarraitu behar da baldintzak eta betekizunak betetzen.

b) Ezin izango dute lehiaketa honetan parte hartu honako hauek: interes partikularrengatik borondatezko eszedentzian dauden karrerako funtzionarioek, egoera horretan egoteko gutxieneko aldiak dirauen bitartean; lan-eternaldi irmoan daudenek, eternaldi horrek dirauen artean; eta nahitaezko lekualdatze bidez zehatutakoek, zehapena ezarri zaien herri berean bada destinoa, betiere urtebete edo hiru urte igaro arte, falta astuna edo oso astuna bada, hurrenez hurren.

c) Berariazko lehiaketa honetan parte hartzeko gutxieneko denbora arautzeko, 1451/2005 Errege Dekretuaren 49.7 artikuluan xedatutakoarekin bat, ez da aplikatuko dekretu horren 46.1 artikuluan ezarritako muga.

d) Berariazko lehiaketa bidez edo izendapen askez bereziturik dagoen lanpostua betetzen ari diren funtzionarioek lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute, lanpostua jabetzan hartu zutenetik urtebetez gutxienez bete badute betiere (abendua 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 54. edo 62. artikulua).

## 2.– Berariazko betekizunak:

Hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketan parte hartzen dutenek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, eskatutako lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute.

## 3. artikulua.– Eskainitako lanpostuak.

Lehiaketa honen bidez bete beharreko lanpostuak agindu honen I. eranskinean jasotakoak dira, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuen zerrendan. Justizia Administrazio Zuzendaritzak erresulta gisa bideratu ahal izango ditu lehiaketa honen ebazpenaren ondorioz hutsik geratzen direnak.

Horretarako, agindu hau argitaratzen denetik eta eskabideak aurkezteko epeak irauten duen bitartean, Justiziako Langileen Atarian, eska daitezkeen lanpostuen zerrenda argitaratuko da (deialdiko izaera berekoak). Tarteka lanpostu hutsak eta erresultak eskatu ahal izango dira.

Ez dira erresultatzat hartuko aldi berean indarrean dauden beste lekualdatze lehiaketetako partaideek hutsik utzitako lanpostuak.

## 4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko ereduak eta epeak.

1.– Lehiaketan parte hartzeko eskabideak agindu honen II eranskin gisa argitaratutako ereduari jarraituz beteko dira (Parte hartzeko eskabidea). Hamar (10) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bi aldizkarietan aldi berean ezin bada argitaratu, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko dira.

2.– Justizia Administrazio zuzendariari zuzenduko zaizkio eskaerak, eta aurkeztu ahal izango dira bai Vitoria-Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATEko sarrera-erregistroan, bai Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Erregistro Orokorrean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan ere bidal daitezke.

Postetxeetan aurkezten direnak bi modutara bidal daitezke:

a) Posta arruntaren bitartez. Kasu horretan, aurkezteko epea amaitu aurretik iritsi beharko dute eskabideek Vitoria-Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATEko erregistrora edo Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren erregistrora.

b) Posta ziurtatuz. Eskabideak gutun-azal irekien barruan aurkeztu beharko dira postetxean, postako langileak, bidali baino lehen, eguna eta zigilua jar diezaien. Postetxeko zigilua duen eskabidea bidali beharko dute; eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, ez da baldintza hori betetzen ez duen eskabiderik onartuko, nahiz eta eskabidea postaz bidali eta gero egiaztatu ahal izan.

3.– Parte-hartzaile bakoitzak lehentasun-hurrenkeraren arabera eskatu ahal izango ditu eskaintako lanpostuak, baldin eta lanpostu horretarako betekizunak betetzen baditu.

4.– Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

– Dagokion kidegoko funtzionario izendapenaren fotokopia konpultsatua, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko funtzionarioa ez bada.

– Jabetzan betetako azken lanpostuaz jabetzeko eginbidearen fotokopia konpultsatua, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko funtzionarioa ez bada.

– Kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiri eguneratua. Emandako zerbitzuak agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunera arte zenbatuko dira. Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak ofizioz emango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko funtzionarioei dagozkien ziurtagiriak.

– Alegatu den euskarazko hizkuntza-eskakizuna ziurtatzen duen tituluaren agiri ofizialaren edo homologazioaren fotokopia konpultsatua.

– Lehiaketan parte hartzen duenak, eszedentzian badago –baldin eta ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtzionarioa–, eszedentzia emateko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko du.

5.– Lehiaketa honetan parte hartzen duen parte-hartzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahal izango du.

6.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, ezin izango dira egindako eskabideak deuseztatu edo aldatu.

7.– Eskabideak aurkezteko aldia bukatu ondoren, egindako eskaera loteslea izango da.

5. artikulua.– Balioeste- eta baremazio-faseak.

Berariazko lehiaketa honek hainbat fase ditu:

1.– Lehenengo fasea: merezimendu orokorrak egiaztatu eta balioestea.

a) Antzintasuna: kidegoan emandako zerbitzuengatik, bi puntu emango dira zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko; epe laburragoak, berriz, proportzionalki zenbatuko dira (0,00555556 eguneko). Ondorio horietarako, hilabeteak hogeita hamar egunekoak direla joko da. Kontzeptu horretan 60 puntu emango dira gehienez.

b) Euskara jakite-maila: lanpostu hau betetzeko eskatzen den baino euskararen jakite-maila altuagoa egiaztatzen bada, gehienez 12 puntu lortuko dira, xede horretarako bakarrik.

Adierazitako jakite-maila hori behar bezala egiaztatu beharko da aurkeztutako tituluaren eta titulu horri dagokion mailaren ziurtagiri ofizialaren edo homologazioaren bitartez, eta horiek eskabideak aurkezteko epearen barruan entregatu beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan eta autonomia-erkidego horren eremuan gauzatu ahal izango diren euskararen normalizazio-planetatik eratorritako gainerako xedapenetan ezarritakoaren araber, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza-eskakizuna esleitu gabe duten lanpostuak:

- 2. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

- 3. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.

- 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

- 2. hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak:

- 3. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.

- 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

- 3. hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak:

- 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea: 12 puntu.

2.– Bigarren fasea: merezimendu espezifikoak balioestea.

I eranskinean deskribatutako lanpostuen ezaugarrietara eta edukira egokitzen diren merezimendu espezifikoak balioetsiko dira, eta, gehienez ere, 28 puntu emango dira.

2.1.– Zuzenbide Lizentzia edo Gradua: eginkizunengatik bereziturik dauden lanpostuetarako zuzenbide lizentzia edo gradua egiaztatzeak 10 puntu.

2.2.– Kudeatzaile prozesal eta administratiboa/bake-epailea kidegoko lanpostua betetzeagatik 1.2 puntu emango dira urte oso bakoitzeko (0.1 puntu hilabete oso bakoitzeko), gehienez 18 puntu emango dira.

3.– Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean baloratuko dira alegatutako merezimenduak.

6. artikulua.– Eskaerak balioestea.

Merezimenduak Lan eta Justizia sailburuaren Agindu bidez izendatutako balioespen-batzordeak ebaluatuko ditu.

Balioespen-batzordean, administrazioiko lau kide izango dira, administrazio horrek berak izendatuta, eta haietarik bat gutxienez Justizia Administrazioiko funtzionario izango da. Administrazioak izendatutako kideetatik hautatuko dira lehendakaria eta idazkaria.

Dagokion alorrean ordezkari gehien duten sindikatuek bi ordezkari izango dituzte batzorde horretan.

Deitutako lanpostuari atxikitzen zaion titulazio bera edo maila handiagokoa eskatzen den kidegoetakoak izan beharko dute batzorde horietako kide guztiek.

Emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da batzordearen osaketan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakorekin bat.

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak aztertu egingo du parte-hartzaileek parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez, eta balioespen-batzordeari laguntza emango dio merezimenduak balioesterakoan, betiere parte-hartzaileen espediente pertsonalean dauden datuak aintzat hartuta, eta parte-hartzaileek, eskariak aurkezteko epean, aurkezten duten dokumentazioaren arabera.

#### 7. artikulua.– Esleipenak.

1.– Lanpostuak esleitzeko hurrenkera merezimendu alegatuen balorazioaren arabera lorturiko guztizko puntuazio altuenetik ateratzen dena izango da.

2.– Guztizko puntuazioa batuta berdinketa gertatuz gero, lanpostua nori eman behar zaion erabakitzeko, kasuan kasuko kidegoan antzinasun handiena nor duen hartuko da aintzat, eta, hala eta guztiz ere, berdinketa badago, kidego horretan sartzeko hautatze-prozesuan lortutako hurrenkera hartuko da kontuan (abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 49.9 artikulua). Berdinketak iraunez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna, dena delako kidego, aukera edo eskala eta kokapen-mailan emakumeak % 40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da plazarako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu (Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikulua).

#### 8. artikulua.– Behin-behineko ebazpena.

1.– Deialdi honen behin-behineko ebazpena Justizia Administrazioiko zuzendariak emango du, eta aldi berean argitaratuko da bai Justiziako Langileen Atarian eta bai Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako EATEko iragarki-oholetan.

2.– Behin-behineko ebazpenean adieraziko dira: esleipendunaren jatorrizko lanpostua eta udalerrria, merezimendu alegatuen balorazioan izandako puntuazioa, eta behin-behinean esleitutako lanpostua.

3.– Onartutakoen eta baztertuen behin-behineko ebazpenaren aurka, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, argitaratzen denetik hamar egun baliodunen epean.

4.– Adierazitako epean erreklamaziorik egiten ez bada, ulertuko da ados dagoela eta onartzen dituela bildutako datuak, merezimendu alegatuen balorazioan emandako puntuazioa eta behin-behinean emandako lanpostua.

5.– Behin-behinean emandako destinoek ez dute eskubiderik ematen, lehiaketaren behin betiko ebazpenari dagokionez.

#### 9.– artikulua.– Behin betiko ebazpena eta lanpostuez jabetzea.

1.– Alegazioak ikusita, deialdi honen gaineko behin betiko ebazpena Lan eta Justiziako sailburuaren agindu baten bidez emango da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2.– Lehiaketa honen ebazpena hiru hileko epean emango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, 1451/2005 Errege Dekretuko 51.3 artikuluekin bat.

3.– Ebazpenean destinoa esleitzen zaien funtzionarioen jatorrizko lanpostua adierazi beharko da.

4.– Lortutako destino berriaz jabetzeko epea hiru egun baliodunekoa izango da, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun baliodunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu, eta hogeit hamar egun baliodunekoa beste autonomia erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Komunitate Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomia eta Melillako Hiri Autonomia. Azken kasu horietan epea hilabetekoa izango da, bai lanpostua jatorrikoa bada, bai destinokoa bada. Plazaren esleipendunak bere jabetza hartzearekin batera zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, epea hogeit hamar egunekoa izango da.

Jabetza hartzeko epe hori lanpostua uzten den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen, eta lanpostua lehiaketaren behin betiko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan utzi beharko da. Ebazpenak zerbitzu aktiboko egoerara itzultzea badakar, ebazpena argitaratzen denetik hasiko da zenbatzen jabetzeko epea.

Funtzionarioak baliatzen ari diren oporrak, baimenak edo lizentziak amaitzen direnean hasiko dira zenbatzen lanpostuaz jabetzeko epeak, salbu eta lizentziak edo baimenak eteteko edo balio-gabetzeko adinako salbuespenezko zirkunstantziak –behar bezala justifikatuta– badaude.

Lanpostuaz jabetu ondoren, lanpostuaz jabetzeko epea zerbitzu aktibo gisa hartuko da ondorio guztietarako, zerbitzu aktibora itzultzen den kasuetan izan ezik.

10.– artikulua.– Esleitutako destinoen izaera.

1.– Lehiaketa honen ebazpenaren ondoriozko lekualdatzeak borondatezkotzat hartuko dira Zerbitzuagatik Kalte Ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako eta, hortaz, ez dute inolako kalte-ordainik kobratzeko eskubiderik emango.

2.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Nolanahi ere, berariazko lehiaketa honen bidez lanpostu bat lortu duten funtzionarioek uko egin ahal izango diote, baldin eta, lanpostuaz jabetzeko epea bukatu baino lehen, deialdi publiko bidez behin betiko beste destino bat lortu badute; hala gertatuz gero, langileak horren berri eman beharko dio erakunde deitzaileari. Jakinarazteko betebeharrak hori bete ezean, esleitutako lehen destinoa hartu beharko du jabetzan funtzionarioak.

11.– artikulua.– Ordezko araubidea.

Deialdi honek zehazki aurreikusten ez dituen kontu guztietan, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan eta Justizia Administrazioaren Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da, eta, osagarri moduan, funtzio publikoari buruzko legedi orokorra aplikatuko da.

12.– artikulua.– Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Lan eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 123 eta 124 artikuluek ezarritakoaren arabera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bi aldizkarietan aldi berean

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

ezin bada argitaratu, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko dira.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkezten denetik hilabete pasatuta, ebazpen adierazirik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsizat jo beharko da; orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, lehen adierazitako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 19a.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.



2018ko martxoaren 7a, asteazkena

I. ERANSKINA  
«EGINKIZUNENGATIK ETAVEDO HIZKUNTZAGATIK BEREZITUTAKO LANPOSTUAK»

Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena   | Lanpostu-mota | Herria          | LH      | Destino-zentroa                             | Kidegoa        | Hizkuntza eskizuna | Hizkuntza bereiztasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|--|---------------|-----------------|---------|---|----------------|--------------------|--------------------------------|----------|
| 480003    | 1        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                       | B             | Amurrio         | Araba   | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa       | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480018    | 2        | Zibileko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila              | B             | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     |          |
| 480018    | 3        | Zibileko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila              | B             | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     |          |
| 480020    | 3        | Zigor-arloko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila          | B             | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2010-01-31                     |          |
| 480026    | 2        | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Kudeatzaila | B             | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala    | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2010-01-31                     |          |
| 480026    | 3        | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Kudeatzaila | B             | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala    | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 1        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                | B             | Zigoitia        | Araba   | Zigoitiako Bake Epaitegia (Udal Elkarte)    | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 24       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                       | B             | Balmaseda       | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa       | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480032    | 2        | Zibileko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila              | B             | Barakaldo       | Bizkaia | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     |          |
| 480034    | 1        | Zigor-arloko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila          | B             | Barakaldo       | Bizkaia | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     |          |
| 480034    | 5        | Zigor-arloko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila          | B             | Barakaldo       | Bizkaia | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480036    | 1        | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Kudeatzaila | B             | Barakaldo       | Bizkaia | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala    | P.A. Kudeaketa | 3                  | 2015-01-31                     |          |



2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena  | Lanpostu-mota | Herria       | LH      | Destino-zentroa                          | Kidegoa        | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza bereiztasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|---|---------------|--------------|---------|--|----------------|----------------------|--------------------------------|----------|
| 480036    | 3        | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Kudeatzailea | B             | Barakaldo    | Bizkaia | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480036    | 4        | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Kudeatzailea | B             | Barakaldo    | Bizkaia | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480007    | 39       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Bermeo       | Bizkaia | Bermeoko Bake Epaitegia                  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480029    | 9        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Bermeo       | Bizkaia | Bermeoko Bake Epaitegia                  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480007    | 40       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Berriz       | Bizkaia | Berrizko Bake Epaitegia (Udal Elkarte)   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 9        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Durango      | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 25       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Durango      | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 10       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Durango      | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480007    | 42       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Elorrio      | Bizkaia | Elorrioko Bake Epaitegia                 | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 44       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Ermua        | Bizkaia | Ermuako Bake Epaitegia                   | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480029    | 1        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Ermua        | Bizkaia | Ermuako Bake Epaitegia                   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 45       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                | B             | Galdakao     | Bizkaia | Galdakako Bake Epaitegia                 | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 26       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 14       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 12       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                       | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena                                     | Lanpostu-mota | Herria       | LH      | Destino-zentroa                        | Kidegoa        | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza berezitasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|--|---------------|--------------|---------|--|----------------|----------------------|--------------------------------|----------|
| 480003    | 13       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 15       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 27       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480004    | 8        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Gernika-Lumo | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 6        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Getxo        | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 7        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea        | B             | Getxo        | Bizkaia | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480004    | 2        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Getxo        | Bizkaia | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 46       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Gorliz       | Bizkaia | Gorlizko Bake Epaitegia (Udal Elkarte) | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480007    | 48       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Igorre       | Bizkaia | Igorreko Bake Epaitegia (Udal Elkarte) | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 50       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Lekeitio     | Bizkaia | Lekeitioko Bake Epaitegia              | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480029    | 2        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Mungia       | Bizkaia | Mungiako Bake Epaitegia                | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 53       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Muskiz       | Bizkaia | Muskizko Bake Epaitegia                | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480007    | 54       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Ondarroa     | Bizkaia | Ondarroako Bake Epaitegia              | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480029    | 3        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Ondarroa     | Bizkaia | Ondarroako Bake Epaitegia              | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480029    | 4        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Portugalete  | Bizkaia | Portugaleteko Bake Epaitegia           | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena   | Lanpostu-mota | Herra              | LH       | Destino-zentroa                              | Kidegoa        | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza bereiztasunaren data | Oharrak              |
|-----------|----------|--|---------------|--------------------|----------|--|----------------|----------------------|--------------------------------|----------------------|
| 480007    | 60       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Sopela             | Bizkaia  | Sopelako Bake Epaitegia                      | P.A. Kudeaketa |                      |                                |                      |
| 480007    | 64       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Zamudio            | Bizkaia  | Zamudioko Bake Epaitegia (Udal Elkarte)      | P.A. Kudeaketa |                      |                                |                      |
| 480007    | 7        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Aretxabaleta       | Gipuzkoa | Aretxabaletako Bake Epaitegia (Udal Elkarte) | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |                      |
| 480007    | 18       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Arrasate/Mondragón | Gipuzkoa | Arrasateko Bake Epaitegia                    | P.A. Kudeaketa |                      |                                |                      |
| 480029    | 6        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Arrasate/Mondragón | Gipuzkoa | Arrasateko Bake Epaitegia                    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |                      |
| 480029    | 11       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Azkoitia           | Gipuzkoa | Azkoitiako Bake Epaitegia                    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |                      |
| 480003    | 28       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Azpeitia           | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak             |
| 480003    | 2        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Azpeitia           | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak             |
| 480003    | 29       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Azpeitia           | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak             |
| 480004    | 9        | Zerbizu Orokor Prozesal Erkideko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Azpeitia           | Gipuzkoa | Zerbizu Erkide Prozesal Orokorra             | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Komunikazio-egintzak |
| 480003    | 30       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Bergara            | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak             |
| 480003    | 31       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Bergara            | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak             |
| 480003    | 32       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Bergara            | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak             |
| 480003    | 18       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Bergara            | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |                      |
| 480003    | 16       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                         | B             | Bergara            | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa        | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak             |
| 480007    | 10       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila                  | B             | Deba               | Gipuzkoa | Debako Bake Epaitegia (Udal Elkarte)         | P.A. Kudeaketa |                      |                                |                      |

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena   | Lanpostu-mota | Herria       | LH       | Destino-zentroa                         | Kidegoa        | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza bereiztasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|--|---------------|--------------|----------|---|----------------|----------------------|--------------------------------|----------|
| 480029    | 12       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Deba         | Gipuzkoa | Debako Bake Epaitegia (Udal Elkarte)    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480003    | 3        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                          | B             | Eibar        | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480007    | 23       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Errenteria   | Gipuzkoa | Errenteriako Bake Epaitegia             | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480007    | 13       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Hondarribi   | Gipuzkoa | Hondarribiko Bake Epaitegia             | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 14       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Ibarra       | Gipuzkoa | Ibarako Bake Epaitegia (Udal Elkarte)   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 34       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                          | B             | Irun         | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480003    | 4        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                          | B             | Irun         | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 36       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                          | B             | Irun         | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 5        | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                          | B             | Irun         | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480004    | 1        | Zerbitzu Orokor Prozesal Erkideko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea | B             | Irun         | Gipuzkoa | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480007    | 15       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Lasarte-oria | Gipuzkoa | Lasarte-Oriako Bake Epaitegia           | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480007    | 16       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Lazkao       | Gipuzkoa | Lazkaoako Bake Epaitegia (Udal Elkarte) | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 19       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Oñati        | Gipuzkoa | Bake Epaitegia Oñati                    | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480029    | 13       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Oñati        | Gipuzkoa | Oñatiko Bake Epaitegia                  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480007    | 20       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzailea                   | B             | Ordizia      | Gipuzkoa | Ordiziako Bake Epaitegia (Udal Elkarte) | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena                                    | Lanpostu-mota | Herria    | LH.      | Destino-zentroa                          | Kidegoa        | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza bereiztasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|---|---------------|-----------|----------|--|----------------|----------------------|--------------------------------|----------|
| 480007    | 22       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Pasaia    | Gipuzkoa | Pasaia                                   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480003    | 21       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 37       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 38       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 22       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 39       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     | Guardiak |
| 480003    | 20       | ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila        | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa    | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480004    | 5        | Gestor/a Proc. y Adm. Serv. Com. Procesal             | B             | Tolosa    | Gipuzkoa | Serv. Común Procesal General y Ejecución | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     | Guardiak |
| 480007    | 25       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Urretxu   | Gipuzkoa | Urretxuko Bake Epaitegia (Udal Elkarte)  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 65       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Usurbil   | Gipuzkoa | Usurbilko Bake Epaitegia (Udal Elkarte)  | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 28       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Zarautz   | Gipuzkoa | Zarauzko Bake Epaitegia                  | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480007    | 30       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Zestoa    | Gipuzkoa | Zestoako Bake Epaitegia (Udal Elkarte)   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |
| 480007    | 29       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Zumaia    | Gipuzkoa | Zumaia                                   | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2015-01-31                     |          |
| 480007    | 31       | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Zumarraga | Gipuzkoa | Zumarragako Bake Epaitegia               | P.A. Kudeaketa |                      |                                |          |
| 480029    | 8        | Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzaila | B             | Zumarraga | Gipuzkoa | Zumarragako Bake Epaitegia               | P.A. Kudeaketa | 3                    | 2010-01-31                     |          |

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

| Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena  | Lanpostu- mota | Herria          | LH      | Destino- zentroa                            | Kidegoa         | Hizkuntza eskakizuna | Hizkuntza berezitasunaren data | Oharrak  |
|-----------|----------|---|----------------|-----------------|---------|---|-----------------|----------------------|--------------------------------|----------|
| 580022    | 8        | Zigor-erfoko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Izapidegilea        | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Izapidetza | 2                    | 2015-01-31                     |          |
| 580024    | 1        | Lan-erfoko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Izapidegilea          | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Izapidetza | 2                    | 2010-01-31                     |          |
| 580024    | 2        | Lan-erfoko ZULUPeko Prozesu eta Administrazio Izapidegilea          | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala | P.A. Izapidetza | 2                    | 2010-01-31                     |          |
| 580029    | 2        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala      | P.A. Izapidetza | 2                    | 2010-01-31                     |          |
| 580029    | 5        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala      | P.A. Izapidetza | 2                    | 2015-01-31                     |          |
| 580029    | 6        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala      | P.A. Izapidetza | 2                    | 2015-01-31                     |          |
| 580029    | 4        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala      | P.A. Izapidetza | 2                    | 2010-01-31                     |          |
| 580029    | 7        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala      | P.A. Izapidetza | 2                    | 2015-01-31                     |          |
| 580031    | 1        | Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesaleko Administrazio Izapidegilea | B              | Vitoria-Gasteiz | Araba   | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra           | P.A. Izapidetza | 2                    | 2010-01-31                     |          |
